



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Arte Eszenikoak II

USE 2024

www.ehu.eus



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketa honek HIRU atal ditu. Atal bakoitzeko bi galderetako bati erantzun behar diozu.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal).

1. atala. Antzerki-obraren iruzkina eta analisisia (4 puntu).

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisia:

a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.

- Antzerki-generoa (puntuak: 0,5).

- Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (puntuak: 0,5).

- Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (puntuak: 0,5).

- Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (puntuak: 0,5).

b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.

- Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa, egilearen ideia artistikoak (1 puntu).

- Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den eta garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (puntuak: 1).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak.

2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu).

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (puntuak: 1).

- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (puntuak: 1).

- Ikasturtean izan dituzun esperientziak (eta ikusitako lan eszenikoak) oinarri hartuta, deskribatu nola konpondu zenuten edo nola konponduko zenituzkeen eszenaratzean inplikaturako alderdiak (adibidez, kritikariak edo teorialariak aipaturakoak) (puntuak: 1).

3. atala. Termino teknikoei buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaizkio bakoitzari.

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

1. ATALA. Iruzkina eta analisisia. Bietako bat aukeratu. (4 puntu)

- a) Samuel Beckett. *Godoten esperoan*.
- b) Yasmina Reza. *Artea*.

2. ATALA. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina. Bietako bat aukeratu. (3 puntu)

- a) Calderón de la Barca. *Bizitza ametsa da*.
- b) Sofokles. *Antigona*.

3. ATALA. Hamabi termino tekniko hauetatik SEIren definizioa eman. (3 puntu)

- 1. Zapalduen antzerkia.
- 2. Supermarioneta.
- 3. Urruneratzea.
- 4. Akzio-unitatea.
- 5. Errealismoa.
- 6. Aurrekua.
- 7. Esperpentoa.
- 8. Ezkutatu.
- 9. Foso (Pezoi).
- 10. Ziklorama.
- 11. Errejidorea.
- 12. Zuzendaria.



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

1. ATALA. Iruzkina eta analisisia.

a) *Godoten esperoan. Samuel Beckett - I. ekitaldia.*

VLADIMIR: Dagoeneko ez diagu zer eginik hemen.

ESTRAGON: Ezta beste inon ere.

VLADIMIR: Tira, Gogo, ez izan horrelakoa. Bihar dena hobeki joango duk.

ESTRAGON: Nondik atera duk hik hori?

VLADIMIR: Ez al duk entzun mutikoak esan duena?

ESTRAGON: Ez.

VLADIMIR: Esan dik Godot ziur asko bihar etorriko dela. (*Tartea.*) Gutxi al zaik hori?

ESTRAGON: Hortaz, hemen itxaron besterik ez diagu.

VLADIMIR: Burutik eginda hago! Aterpea behar diagu! (*Eskutik heltzen dio Estragoni.*) Hator. (*Tira egiten dio besotik. Estragonek amore ematen du hasieran, baina gero kontra egiten dio. Gelditu egiten dira.*)

ESTRAGON (*zuhaitzari so eginez*): Tamalez ez diagu soka-mutur bat aldean.

VLADIMIR: Hator. Hozten hasi dik dagoeneko. (*Tira egiten dio besotik. Lehengo joko bera.*)

ESTRAGON: Oroitaraz iezadak soka-mutur bat ekartzeko bihar.

VLADIMIR: Bai. Hator nirekin (*Tira egiten dio besotik. Lehengo joko bera.*)

ESTRAGON: Zenbat denbora da denbora guztian elkarrekin gaudela?

VLADIMIR: Ez zakiat. Berrogeita hamar urte edo.

ESTRAGON: Oroitzen haiz neure burua Ebrora bota nuen egunaz?

VLADIMIR: Mahats biltzen genbiltzan.

ESTRAGON: Hik arrantzatu ninduan uretatik.

VLADIMIR: Hori guztia kontu zaharrak dituk.

ESTRAGON: Nire jantziak eguzkitan lehortu zituan.

VLADIMIR: Utziok tema horri, ea. Hator. (*Lehengo joko bera.*)

ESTRAGON: Itxaron.

VLADIMIR: Hotz nauk.

ESTRAGON: Nagok ez ote zen hobe bakarrik etorri bagina, nor bere gisa. (*Tartea.*) Ez gintuan gu biok bide bererako eginak.

VLADIMIR (*zapuztu gabe*): Ez duk ziur hori.

ESTRAGON: Ez, ezer ez duk ziur.

VLADIMIR: Beti gaudek garaiz elkarrengandik banatzeko, komeni dela baderitzok.

ESTRAGON: Honezkero ez dik merezi.

(*Isilunea.*)

VLADIMIR: Egia duk, honezkero ez dik merezi.

(*Isilunea.*)

ESTRAGON: Orduan, martxa?

VLADIMIR: Goazemak. (*Ez dira mugitzen.*)



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

1. ATALA. Iruzkina eta analisisia.

b) Yasmina Reza. *Artea*

MARC: Koadro hau ez duzu zuri ikusten, Yvan?

YVAN: Ez, guztiz ez...

MARC: A, ja. Eta zer koloretakoa ikusten duzu?...

YVAN: Koloreak ikusten ditut... Horia, grisa, lerro okrexka batzuk ikusten ditut...

MARC: Eta kolore horiek hunkitu egiten zaituzte.

YVAN: Bai... kolore horiek hunkitu egiten naute.

MARC: Ivan, ez zara tinkoa. Izaki hibridoa eta biguna zara.

SERGE: Zergatik zara halako oldarkorra Yvanekin?

MARC: Gortesaua delako, morroia, diruaz liluratua, berak kultura dela uste duenaz liluratua dagoelako, eta nik errukirik gabe oka egiten dut kultura horren gainean.

Isilune labur bat.

SERGE: ... Baina zer gertatzen zaizu?

MARC: (YVAN!) Nola egin dezakezu, Ivan?... Nire aurrean. Nire aurrean, Yvan.

YVAN: Zure aurrean, zer?... zure aurrean, zer?... Bai, jauna. Kolore horiekiko sentikorra naiz. Eta zer! Eta utzi behingoz gainerako zure irizpidea ezartzeari.

MARC: Nola esan dezakezu, nire aurrean, kolore horiekiko sentikorra zarela?...

YVAN: Egia delako.

MARC: Egia? Kolore horiek hunkitzen zaituzte?

YVAN: Bai. Kolore horiek hunkitzen naute.

MARC: Kolore horiek hunkitzen zaituzte, Yvan?!

SERGE: Kolore horiek hunkitzen dute. Eskubide osoa du!

MARC: Ez, ez du eskubiderik.

SERGE: Nola ez du eskubiderik?

MARC: Ez du eskubiderik.

YVAN: Ez dut eskubiderik?!...

MARC: Ez.

SERGE: Eta zergatik ez du eskubiderik? Badakizu azkenaldian ez zaudela batere ondo, medikuari bisita beharko zenioke.

MARC: Ez du eskubiderik kolore horiek hunkitzen dutela esateko, gezurra delako.

IVAN: Ez nautela hunkitzen kolore horiek?!

MARC: Ez dago kolorerik. Ez dituzu ikusten. Beraz, ez zaituzte hunkitzen.

IVAN: Hitz egin zeureaz!

MARC: A ze itsusia, Yvan!...

SERGE: Baina, nor zara zu, Marc?!... Nor zara zu zure legea ezartzeko? Ezeri estimu egiten ez dion morroi bat, jende guztia gorrotatzen duena, bere garaiko gizona ez izateaz harro dagoena...

MARC: Zer esan nahi du bere garaiko gizona izateak?

YVAN: Ciao. Ni banoa.

SERGE: Nora zoaz?

YVAN: Banoa. Ez dakit zergatik jasan behar ditudan zuen «kontu txarrak».

SERGE: Zu hemen geratuko zara! Ez egin orain saminduarena... Alde egiten baduzu, arrazoia ematen diozu.

(YVAN geratu egin da, zalantzati.)

Bere garaiko gizona bere garaian bizi den gizona da.

MARC: Ederra ergelkeria. Nola bizi daiteke gizon bat bere garaian ez den beste garai batean? Azaldu hori niri.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko OHIKOA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2024

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

2. ATALA. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.

a) Calderón de la Barca. *Bizitza ametsa da*.

Declan Donnellan-ek '*Bizitza ametsa da*' hondatu du, baina estilo handiarekin.

Egilea: Liz Perales. (2022ko abenduaren 17a)

https://www.elespanol.com/el-cultural/blogs/stanislavblog/20221217/declan-donnellan-carga-vida-sueno-estilo/726547352_12.html



Argazkia: <https://aescenarevista.com/alfredo-noval-y-rebeca-matellan-en-la-vida-es-sueno>

Declan Donnellan jo ta ke sartu da *Bizitza ametsa da* obran. Baliteke zerikusia izatea horretan zuzendaria britainiarra izateak eta gaztelaniaz tutik ere ez jakiteak. Kontua da errotik aldatu duela obraren hari gidaria, drama dena fartsa bihurtu baitu, eta obra muntatzean erabili ohi den afektazioa eta erreberentzia gabe egin du muntaketa. Bertsioaren onena Segismundo da, Alfredo Novalek interpretatua, haluzinatu pailazo samar bati bizia ematen diona, eta Ernesto Ariasen Basilio pertsonaia, ikuskizunaren benetako protagonista. Okerrena, berriz, obrak desmitifikazio-prozesu horretan ordaintzen duen prezioa da: autorearen ideia filosofiko guztiak bazterrera utzi dituzte Donnellan-ek eta Nick Ormerod-ek (dramaturgiaren egileek).

[...] Ormerod-en eszenografiak sinpletasunari eta eraginkortasunari jarraitzen die: proszenio erabat biluzia eta horma bat foroan, pertsonaiak sartu eta ateratzeko zazpi ate dituen. Ganecha Gilen albo-argiztapena bikaina da. Hormaren gaineratik antzerkiaren kutxa biluzia ikusten dugu, bizitza antzezpena dela dioen ideia barrokoa azpimarratuz.

Ikuskizunak behin eta berriz agertzen den klasikoen interpretazioen eta birsortzeen gaira itzultzen gaitu, batez ere eszena-zuzendariak erabakitzen badute berak testuetara egokitu beharrean berek alde zuzenean egin duten moldera egokitzea testuak. Horregatik, uste dut muntaketak jendea zatituko duela. Eszenaratze kanoniko baten zain daudenak harrituta geratuko dira, eta ez gustura. Obra pixka bat ezagutzen duten zaleek beharbada hobeto ulertuko dute,



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko OHIKOA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2024

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

eta baliteke ondo pasatzea. Hori bai, ez dakigu zer ulertuko duten klasikoak ikustera joan ohi diren institutuetaiko ikasleek.

TESTUA: Calderón de la Barca. DRAMATURGIAREN EGOKITZAPENA: Declan Donnellan eta Nick Ormerod. ZUZENDARITZA: Declan Donnellan. Aktoreak: Ernesto Arias, Prince Ezeanyim, David Luque, Rebeca Matellán, Manuel Moya, Alfredo Noval, Goizalde Núñez, Antonio Prieto eta Irene Serrano. Espazio eszenikoa eta jantziak: Nick Ormerod. ARGIZTAPENA: Ganecha Gil. SOINU-KONPOSITOREA ETA -DISEINATZAILEA: Fernando Epelde. ZUZENDARITZAKO LAGUNTZAILEA: Josete Corral. DRAMATURGIA-AHOLKULARIA: Pedro Villora. MUGIMENDU-AHOLKULARIA: Amaya Galeote. KOPRODUKZIOA: Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionala, LAZONA eta Cheek by Jowl.

2. ATALA. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.

b) Sofokles. *Antigona*.

Companhia do Chapitô-k '*Antigona 3 x 3,5*' estreinatu du. Egilea: Artezblai (2022ko martxoaren 2a) <https://www.artezblai.com/la-companhia-do-chapito-estrena-antigona-3-x-35/>



Argazkia: <https://www.agendalx.pt/events/event/antigona-3-por-3-%C2%BD/>

Elektra eta *Edipo* beren aurreko muntaketen arrakastaren ondoren, Companhia do Chapitô-k *Antigona 3 x 3,5* estreinatu du orain. [...]



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

Companhia do Chapitô-k, sorkuntza kolektibo berri honetan —bere errepertorioko 38.a—, publikoaren irudimenari gonbit egiten dion komedia bisual eta fisikoaren estiloa lantzen jarraitzen du. Izan ere, tragedia komedia bihurtzea, errealitate fisiko eta sozialaren alderdi guztiak zalantzan jartzeko duen ahalmenagatik baloratuz, konpainia honen premisetako bat izan da.

Sofoklesen tragedia honetan amaiera tragikoa baino tragikoagoa da, tartean diren guztiak hiltzen baitira, Kreon izan ezik, zeina bere bizitza amaitu arte geratzen baita bere erroreak ordaintzeko.

Portugalgo konpainia eszenaren muinera itzuli da, 'Elektra' eta 'Edipo' aurreko sorkuntzen ildotik; hala, izaera greko-latindar klasikoko trilogia bat itxi du, zeinaren ezaugarria baita bitarteko eszenografikoen ekonomia eta pieza klasikoaren destilazioa (edo egokitzapenik eza).

Obrak 60 minutu irauten du, eta eszenografia lurreko lauki bat besterik ez da, 3 x 3,5 metrokoa, linoleum zurikoa.

ZUZENDARITZA: José C. García eta Cláudia Nóvoa.

EGOKITZAPENA/SORKUNTZA KOLEKTIBOA: Companhia do Chapitô.

AKTOREAK: Pedro Diogo, Susana Nunes, Tiago Viegas. SOINU-ESPAZIOA: A

Cadeira d'Avó. IKUS-ENTZUNEZKOAK: Bruno Gascón eta Joana Domingues.

JANTZIAK: Glória Mendes. ARGI-DISEINUA: José C. García eta Bruno Boaro.

Kalifikazio-irizpideak

Probaren A eta B aukerek atal berak dituzte. Probak antzerki-obra edo -pasarte bat izango du beti, eta, harekin batera, galdera sorta bat, eta ikasleek, modu egokian erantzungo badute, pentsamendu kritikorako eta gogoetarako gaitasuna eta heldutasuna izan behar dute. 90 minutuko iraupena izango du, eta hiru atal izango ditu.

1. atala. Antzerki-obraren iruzkina eta analisisa (4 puntu)

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisa:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
 - Antzerki-generoa (puntuak: 0,5).
 - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (puntuak: 0,5).
 - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (puntuak: 0,5).
 - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (puntuak: 0,5).
- b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
 - Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa (puntuak: 0,5).
 - Egilearen ideia artistikoak (puntuak: 0,5).
 - Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den (puntuak: 0,5).
 - Garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak.

2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu)

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (puntuak: 1).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (puntuak: 1).
- Testuan ageri diren ideiei buruzko iritzi pertsonala, zure eszenaratze-esperientzietan oinarritua (puntuak: 1).

3. atala. Termino teknikoei buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaizkio bakoitzari.